

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkartearen aldizkaria | 34 zk | 2021eko abendua



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ



**Euskara lanean
txertatzeko erronka
abiatu dute
Arabako enpresek**



Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez

Elkarlanaz bi hitz

BAI aldizkariaren zenbaki honetan Bai Euskarari Elkartek aurten abiatutako zenbait proiekturen berri dakarkizuegu. Proiektu berriak dira, garai zailetan abiatutakoak, elkarlanaren emaitza direnak. Pandemiak bete-betean jo zuen 2020-2022 epealdirako plan estrategikoan zehaztutako ildoak abiatu genituenean eta, hala ere, gai izan gara identifikatutako foku nagusien inguruan urrats esanguratsuak egiteko. Hortik etorri dira gure azken berrikuntzak: elkartearen osotasuna eta heldadura erakusteko marka berritzea, gure lan eremuak eta proiektuak behar bezala antolatzea, lankidetzaren berriak bilatzea... Gure ohiko proiektuekin segitu dugu eta, halaber, gai izan gara alor sozioekonomikoaren eragilean eta espazioen aktibazioan eragiteko proiektu berriak lantzeko eta abiatzeko: Elkarrengandik Ikasiz solasaldien bitartez, etorkizunera begirako ikaskuntzak jasotzearekin batera, kooperatibismoaz, formakuntzaz, enpleguaz eta lan eredu berriez elkarrengandik ikasteko aukera izan dugu. Arabako enpresen foroan ere elkarrekin ari gara, lurraldeko enpresen eta administrazioen eskutik; erronkak zehazten hasita gaude, alor sozioekonomikoan euskarara sustatzeko asmoz. 2022an ere

beste zenbait proiektu aurkeztuko ditugu, lankidetzaren emaitza izango direnak.

Hausnarketa estrategikoan azpimarratu genuen bezala, gure elementurik bereizgarriena Bai Euskarari Ziurtagiria da. Ekainean jakinarazi genuen proiektu honetan Eusko Jaurlaritzak zehaztutako *Erreferentziazko Marko Estandarrera* hurbiltzeko eta egokitzeko urratsak egin ditugula, lankidetzaren errazteko asmoz. Eusko Jaurlaritzaren *Euskarara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Planean* -EESSP- aitortzen da Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez egindako ekarpena eta azpimarratzen da ziurtagiriaren eskema egokitu, indartu eta zabaltzearen beharra. Planean jaso arren, oraindik ez da inolako lankidetzarik bideratu alor honetan eta, gainera, bada zantzurik esateko Jaurlaritza marka berri bat sortzeko asmotan dabilela...

Azken hilabeteotan geroa elkarrekin eraiki beharraz aritu gara, elkarlanean jardutearen beharraz, jauzia egiteko edo egoera eraldatzeko batzearen beharraz. Guk ez dugu inolako zalantzarik eta horretan ari gara. Beste eragile batzuk ere hitzetatik ekintzetara pasatzen ikusi nahiko genituzke, elkarlanaren bideari zintzoki helduta.

Arabako Enpresen Foroa 03

Elkarrengandik ikasiz 06

- Kooperatibismoa atzo eta gaur
- Enplegu eskaintza euskal enpresa sarean
- Lan eredu berria

Elkartea 12

- Lansarean
- Enpresarean

Komunitatearen txokoa 13

- Mediabask hitzarmena
- Bai Euskarari Ziurtagiria
- Txukuntzen
- Moondura Kit Van Camper

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain

t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona

t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.

Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina,

13. bulegoa 31014 Iruñea

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea, Arteman Komunikazioa, IMH, Mediabask, TxukuntZEN, Moondura.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



Euskara lanean txertatzeko erronkak zehaztu dituzte Arabako enpresek



Arabako 13 enpresak parte hartu dute Arabako Enpresen Foroaren barruan aurten egin diren hiru saioetan eta bakoitzak bere erronkak identifikatu ditu: hizkuntza gaitasuna handitzea; barne komunikazioan eta lan tresnetan euskara txertatzea; erakundearen irudia euskalduntzea; eta kanpo komunikazioan euskara erabiltzea izan dira aukeratutako erronkak. Halaber, erronka horiei aurre egiteko administrazioek eta aholkularitzek dituzten tresna eta baliabideen berri jaso dute eta, gainera, beste enpresa batzuetan

erronka horiei nola aurre egin dieten ikasi dute. Ereduak eskaini dituzten enpresa hauen artean daude, besteak beste, Laboral Kutxa, Osasuna, Euskalit, Danobatgroup eta Ulma.

Arabako Enpresen Foroa iaz abiatu zen, Eusko Jaurlaritzak sustatuta, Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin lankidetzan, Arabako alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko asmoz. Foroak segida izan du 2021ean eta, hasieratik, Bai Euskarari Elkarteak arduratu da bere kudeaketaz.

Enpresa hauetako ordezkariak parte hartu dute saioetan: Mutualia, La Vitoriana, Sirimiri Zerbitzu Soziokulturalak, EBA S.L., Ludoland, SEA Arabako enpresariak, Orona, Ega Master, RPK, Uriarte Industrial, Oreka IT, Artepan-Mamia, El Corte Inglés eta Mondragon Korporazioa.

Enpresa bakoitzak bere erronkari heldu eta pausoak emateko garaia da orain. Foroan parte hartu duten lau enpresatako zuzendariak datozen hilabeteetarako dituzten erronken berri eman digute (hurrengo orrian).

Euskara lanean txertatzeko erronkak, zuzendarien hitzetan



Iraitz Perez de Goldarazena
OREKA IT

“Gure erronka nagusia zen enpresa eta langileen arteko komunikazio guztia elebiduna izatea, eta hori lortu dugu. Orain enpresa barruan arnasmuneak handitu nahi ditugu. Euskara gutxi erabiltzen den taldeetan nola bultzatu pentsatu behar dugu. Erabilera informalean ere gehiago eragin nahi dugu. Enpresak sortzen dituen ekitaldi, bazkari, txango eta abarretan euskara bultzatzen jarraituko dugu.”



Eneko Uriarte
URIARTE INDUSTRIAL

“Konturatu gara bezeroari asko gustatzen zaiola bere hizkuntzan hitz egitea, eta hori abantaila izan daiteke. Orain gure helburua da zerbitzua euskaraz eskaintzea edonori. Bide horretan, gure langileei euskara ikasteko ikastaroak egitea proposatu zaie.”



Jose Ricardo Romo
RPK

“Euskara-batzorde bat sortu dugu eta aldi behin biltzen da euskararen alorrean egin ditzakegun jarduerak aztertzeko. Orain inkesta bat egingo dugu RPKn euskararen egoera zein den jakiteko, diagnostikoa egiteko. Inkesta horren ondoren, ekintza-plan bat egingo dugu, jarduerak proposatuko dituen bideorri bat, ekintza bakoitza nork egingo duen eta noiz zehazteko.”



Arantza Fdz de Larrinoa
ELECTRA VITORIA - ORONA

“Lorpen handiak izan ditugu azken urteetan enpresaren barruan eta jende askok erabiltzen du euskara bere lanean. Ondorioz, gure erronka kanpora begira euskara gehiago erabiltzea da, bezeroarekin. Egunero gaude bezeroekin harremanetan, eta jendea prestatu nahi dugu haiekin euskaraz egin dezaten.”

Informazio gehiago eta zuzendariari egindako elkarrizketak:





Badatoz jolasak!

Hemen duzu jolas hezitzaileen gida berria. Haurrak jolasten jartzea dugu helburu, baina haien heziketan eta garapenean lagunduz, aldi berean.

-%5
elkarkideentzat



www.jolasak.eus



www.elkar.eus

Arabako enpresen hizkuntza-kudeaketa hobetzen laguntzeko galdetegia

Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden 20 eta 49 langile bitarteko enpresei galdetegi bat betetzea proposatu zaie, hizkuntzen presentziari eta erabilerari buruzko informazioa biltzeko helburuarekin. Horrela, enpresei hizkuntza-kudeaketa hobetzen lagunduko dieten neurriak proposatu eta ezarri ahal izango dira.

Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak, Lanabes ekimenaren barruan, lankidetzan sortutako proiektua da honakoa. Arabako Enpresen Foroaren kasuan bezala, proiektu hau Bai Euskarari Elkarte ari da kudeatzen.



Doako aholkularitza, Gasteizko ETEetan euskara kudeatzen hasteko

Aurten, Lanabes egitasmoaren baitan, Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bat egin dute 10 eta 49 langile bitarteko enpresekin lanean jarduteko. Proiektu honen barruan, bi urteko diagnostikoa eta aholkularitza zerbitzua eskainiko zaie doan, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzen duten eta bere bitartez lan egingo duten Gasteizko entitateei eta enpresei.

Ziurtagiria eskuratze-prozesuan elkarteko aholkulariek laguntzen dute. Erakundearen euskara-egoera zein den jakin nahi izanez gero,

auto-diagnostikoa egin daiteke eta euskara-maila zehatza jakiteko eta hobetzen laguntzeko harremanetan jarriko dira Bai Euskarari Elkarteko aholkulariak.

Auto-diagnostikoa egin:



**ZIURTAGIRIA
LORTZEKO
HAMAIIKA
ARRAZOI**

Beste #11arrazoi bildu ditugu Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko.

Zein da zuen arrazoa? Ezagutu guztiak



‘Elkarrengandik Ikasiz’ solasaldiak, kooperatibismoa, enplegua eta lan eredu berriak aztertzeko

Irailaren 28an ‘Elkarrengandik Ikasiz’ proiektua estreinatu genuen, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Hiru solasaldik osatu dute proiektua eta, bederatzik lagun eskutik, elkarrengandik ikasteko aukera izan dugu kooperatibismoaz, enpleguaz eta lan eredu berriez.

Hona ekarri ditugu solasaldietako hainbat pasarte.

Kooperatibismoa atzo eta gaur



Kooperatibismoaren historia, babilioak, euskara eta aurrera begirako erronkak izan zituzten hizpide Ander Etxeberria Otaduid (Mondragon Korporazioa), Naroa Elortza Gorrotxategik (Goiener-Olatukoop) eta Aitor Bengoetxea Alkorkak (Gezki).

Kooperatibismoaren historiari erreparatuz hasi zuten solasaldia eta kooperatibismoaren erresistentziatik eta beharretatik sortu zirela garbi azaldu zuen Naroa Elortzak: “Gaur egun ere ikusten dugu: zapalduak kolektiboak daude, eta erresistentziarako eta bizi duin bizigarriak sortzeko bidea dira kooperatibismoa. Baina, Arrasateko kooperatibismoa eta Euskal Herrikoa harantzago doaz. Arrasa-

teko kooperatibismoaren oinarrietako bat, eta uste dut etorkizuna eraikitzeko funtsezko horietako bat, formazioa bera dela: ideologizazioa, ahalduntzea, etab. Beharretatik sortuta dago, goazen zerbait egitera, baina era berean badago ideologikoki prestatzeko gogoia ere, formazioaren aldetik honi guztiari aurre egiteko.”

Ander Etxeberriak bat egin zuen Elortzaren ideia horrekin: “Arrasateko kooperatibismoaren historian hori ikusten da. Lehenengo enpresa kooperatiboa 1956an sortu zen, baina hazia 1941ekoa da. Arizmendiarrak 1941ean etorri zen Arrasatera, eta urtetan gazteekin egin zuen lana, Ormaetxeak esaten zuen moduan,

sirimiria izango da. Hezkuntza eta aktibismoa: kirol aktibitatea, eskola profesionala sortzea, tertulioak, txirroi laguntzeko errifak... eta sirimiri horren ostean etorri zen lehenengo enpresa.”

Indibidualistak dira gaur egungo kooperatibistak?

Dena den, eta kooperatibismoaren printzipioak gizarteari ekarpena egitera bideratuta badaude ere, oraindik badago indibidualismoaren kezka kooperatibismoaren barruan. Elortzak 70eko hamarkadako Ularco kooperatiba taldeko (Ulgor, Arrasate, Copreci, Ederlan eta Fagor Electróni-

cak 1965ean sortutako kooperatiba taldea) akta batean irakurritakoa ekarri zuen gogora: “Garai hartako Errektore Kontseilu eta Batzar Nagusiko hausnarketa bat dago non kooperatibako langileek beraiek indibidualistak eta kapitalistak ote diren ardura duten. Eta nik uste dut gaur egun ez dagoela horrelako ardurarik kooperatibisten artean, indibidualismoa txertatuta dagoela. Beharrak ase ditugunean, ez zaigu asko inporta inguruan zer gertatzen den.”

Aitor Bengoetxeak beste ikuspuntu bat partekatu zuen kooperatibisten eta indibidualismoaren inguruan: “Erraza da kooperatibismoa kritikatzeko, printzipioak dituelako, baina kontua da iparrorratza inoiz ez galtzea. Kooperatibak, irla bat izanda, nahiko lan izango du mugimendu kooperatiboa indartzeko; irla horiekin atxipelago bat sortuta (lan kooperatiba bat, kontsumo kooperatiba, energia kontsumo kooperatiba), baina, muskulua indartuko du.”

Euskara kooperatibetan

Euskal Herriko kooperatibetan euskara txertatzeko sentsibilitate handiagoa egon ohi da eta horrela azaldu zuen fenomeno horren arrazoia Ander Etxeberriak: “Norbaitek galdetuko du: Zelan da posible kooperatibetan hainbeste euskara plan izatea? Kontua da gizartean nahi hori

badago, kooperatibetako jendea gizarte horretan bizi da, eta kooperatibako jendeak sentsibilitate horrekin hartzen dituela erabakiak. Erabakiak ez ditu hartzen beste norbaitek; bazkideak hartzen ditu.”

Elortzak gaineratu zuen garrantzitsua dela kudeatzaileek, zuzendariak edo Kontseilu Errektorean daudenean ikuspuntu politiko horren aldeko apustua egitea: “Garrantzitsua da organo batzuk izatea benetan irudikatzen dutenak euskararen inguruko zein jarrera izan behar duen kooperatibak. Bestela, efizientziaren aldetik, gaztelaniak errazago egiten digu bizimodua. Zein garrantzitsua den koordinazio-organoean daudenean sentsibilizazio hori izatea.”

Bengoetxeak ere garrantzitsutzat jo zuen euskara enpresetan erabiltzea: “Alde guztietatik begiratuta, barnera zein kanpora begira, euskara aurrean jarri beharko lukete kooperatibek marka bezala. Lehenik eta behin, badagokielako, eta hortik abiatuta, harrotasunez eraman marka propio hori.”

Etorkizunera begira

Etorkizuneko kooperatibak irudikatzen ariketa ere egin zuten hirurek. Etxeberriak, idealista izanda, jendea formatzerik behar ez duen kooperatiba bat imajinatu zuen: “Sistema kapitalistak formatu behar ditu bere langileak? Egunen batean ima-

jinatzen dut gurean ere ez dela behar harko. Lehen zer bilatzen zuen gazte batek gure kooperatibetan? Lan on bat, egonkorra, soldata on batekin, parte hartzeko aukera izango zuena eta begirada bat gizarteari. Eta, gaur egun gauza bera bilatzen dute. Nola erakarri gazteak? Bada, eskaini lan on bat, soldata on bat, parte hartzeko aukera, gizartearekiko sentsibilitatea... ikusiko duzu nola etorriko diren!”

Elortzak proiektu komun bat eraikitzeke ideia nabarmendu zuen: “Gaur egungo ekonomia sozial eraldatzaileko kooperatiba txikietan soldata duinen bila goaz eta, horrekin batera, proiektu komun bat eraikitzeke aukera dugu, horren alde sinisten dugu eta denon artean eraikitzen dugu. Jendeari sinestarazi behar diogu hori dela kooperatiba, elkarte edo eragile sozialen helburua.”

Bengoetxeak, ideia horri tiraka, kooperatibismoa hitzaren funtsa gogora ekarri zuen: “Kooperatibismoa zerbait bada, ko-tik hasita, elkarren arteko zerbait da. Lanean, adibidez, komeni da ideia oinarritzeko bezala azaltzea lan-eredu ezberdin bat eskaintzen duela kooperatibak: lan egingo duzu aldamenekoarekin. Ez duzu lan egingo beste batentzat edo zure buruarentzat. Norbaitekin hori askotan ahaztuta geratzen da, baita legedia arloan ere, eta hori mahai gainean jarri behar da.”



ANDER ETXEBERRIA
OTADUI
MONDRAGON KORP.



AITOR BENGOETXEA
ALKORTA
GEZKI



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI
GOIENER-OLATUKOOP

Formakuntza eta enplegu eskaintza euskal enpresa sarean

EUSKAL ENPRESETAN DAUDEN FORMAKUNTZA EREDUEZ ETA ETORKIZUNEN LANGILE BERRIEK IZAN BEHARKO LUKETEN PROFILAZ ARITU ZIREN 2. SOLASALDIAN



IBAN UHALDE
AKI

Enpresa bakoitzean zein praktika-eredu darabilten azaldu zuten solasaldiaren hasieran. Ainhitze Etxeberriak nabarmendu zuenez, Oronan bi motatako praktikak lantzen dituzte: "Alde batetik, Lanbide Heziketako ikasleak ditugu eta, bestetik, unibertsitatekoak. Lanbide Heziketan ikasketa amaieran egiten ziren lehen praktikak, hiru hilabetez, baina eredu hori geroz eta gehiago dualerantz eramaten ari gara, ikasketa eta lana uztartzen dituen eredurantz; oso emaitza onak ditugu. Unibertsitateari dagokionez ere harreman luzeagoa egin nahi dugu ikasleekin; alternantzia deritzogun ereduaren bidez hiru urteko harremana sortzen dugu ikasleekin. Horrek elkar ezagutzeko aukera handiagoa ematen digu."



AINHITZE ETXEBERRIA
ETXEBERRIA
ORONA GROUP

Goizper Taldean ere ikasleekin harreman luzeagoa bilatzen dute. Halaxe azaldu zuen Antton Mendizabalek: "Azken 20 urteetan geroz eta gehiago ari gara erabiltzen dualaren eredu. Gertuko unibertsitatearekin eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin hitzarmenak bultzatzen ditugu eta interesgarria da ikasleek ikasi duten teoria hori gero praktikan jartzea eta lan-errealitateara ekartzea."

Ipar Euskal Herrian aspalditik ari dira aprendizgoaren ereduarekin eta ikasten ari diren bitartean ikasitako hori praktikan jartzen dute enpresetan. Alki-ko Iban Uhalderen esanetan, "enpresarentzat ere ona da hori, profesionalen artean ezagun egiten baikara. Saiatzen gara ikasle guztientzat aprendizgoak proposatzen."



ANTTON MENDIZABAL
ITURRIZA
GOIZPER GROUP

Konpetentziak garatzeko aukera

Alabaina, ikasleak teknikoki oso prestatuta dauden arren, oraindik ere lan mundurako zenbait konpetentzia behar dituztela nabarmendu zuen Mendizabalek: "Teknikoki oso ondo prestatuta datoz ikasleak, baina zenbait konpetentzian ez: talde lana, ekimena, proaktibitatea, harremanetarako gaitasuna... Enpresak horiek garatzeko aukera eskaintzen die."

Uhalde ere bat etorri zen behar horrekin: "Eskolan ez dira harremanetan formatuak sobera, eta praktiketan horretan sakontzen dute. Harremanen arloa oso garrantzitsua da enpresa batean."

Etxeberriak azpimarratu zuen arlo hori dual edo alternantzia ibilbideekin landu daitekeela:



“Duala edo alternantzia eskainiz ikaslearekin harremana aberatsagoa da eta aukera gehiago daude elkar ezagutzeko. Izan ere, helburua izan ohi da praktikan hartu duzun pertsona hori enpresan geratzeko eta lanpostu bat eskaintzea.”

Euskara, lehiakortasunerako giltza

Ikasleek, teknikoki prestatuta izateaz gain, hizkuntza bat baino gehiago menperatu behar izaten dituzte zenbait kasutan. Euskal Herriko kasuan, euskara lehiakortasunerako giltza dela uste du Etxeberriak: “Sinistuta nago lehiakortasunean laguntzen duela euskarak. Gu gauden lekuan egonda eta gure bezero gehienak euskaldunak izanda, zerbitzu hori euska-

raz eman ahal izatea balio erantsia da. Kasu horretan, garbi dago lehiakortasunean laguntzen duela, bezeroekiko harremana hobetzen baitu.”

Ipar Euskal Herrian egoera bestelakoa da: “Enpresa gutxi daude euskara baliatzen dutenak eta gu ezagunak gara euskaldunak izateagatik. Gurera euskaldun gehiago etortzen dira lan egitera.”

Berdintasuna aldarrikatuz

Zientzia, teknologia eta ingeniari-tzarekin lotutako ikasketetan gizon-eko gehiago dagoela eta Ainhitze Etxeberriak nahiko lituzke “gizon hainbat emakumezko” Oronan. “Ingenieritzan badaude emakumeak, baina Lanbide Heziketan eskatzen ditugun profiletan, mekatronika eta elektronikan, oso zaila

izaten da emakumezkoak aurkitzea.”

Uhaldek ere nabarmendu zuen “aspektu teknikoan gizon-eko gehiago” dituztela eta arlo komertzialean emakumeak direla nagusi.

Telelana geratzeko etorri da

Etxeberriak azpimarratu zuen “lehenago imajinatzen ez genituen egoerak” bizi izan dituztela eta orain arte “behartuta” egindako aldaketak geratzeko etorri direla.

Mendizabalek esan zuen gero eta langile gehiegok galdetzen dutela telelanaren inguruan: “Beti daude molde berrietara egokitze erresistentziak, baina gaur egun maizago galdetzen da ea etxetik lan egin dezaketen. Hemendik oso gutxira prest izan beharko dugu horretarako.”

COVID-19aren osteko lan eredu berria



**AITO URZELAI
INZA**
SPRI



**GORKA BARRUETABEÑA
ITURRIAGA**
SORLAND



**IRAITZ PEREZ DE
GOLDARAZENA URKIOLA**
OREKA IT

Kontziliazioa, telelana, gaurko merkatuan bizirauteko gakoak eta estrategia digitalaren garrantziaren inguruan jardun zuten Aitor Urzelai Inzak (SPRI Taldea), Iraitz Perez de Goldarazena Urkiolak (Oreka IT) eta Gorka Barrueta Beña Iturriagak (Sorland) #Elkarrengandikikasiz solasaldi seriearen azken kapituluan.

COVID-19aren pandemiak telelana bultzatu ditu hainbat enpresa eta beraien esperientzien berri eman ziguten hirurek.

Kontziliazioa eta telelana

Sorlanden, adibidez, pandemiaren aurretik ere telelana egiten zuten eta lan egiteko modu hori jendea "ondo zaintzeko" modukoa dela esan zuen Gorka Barrueta Beña: "Denetariko esperientziak daude eta hor enpresak dauka alderik garrantzitsuena. Enpresan bizikidetzaren inguruan berba eginda badago eta telelana modu adostu batean planteatuta badago, ondo egingo da. Telelanak aukera ematen du lana norbere

interesaren eta zaintzen arabera antolatzeko."

Spri Taldean ez zuten pandemia aurretik telelanik egin eta, batean, egokitu behar izan zuten egoera berrira. Aitor Urzelai aipatu zuen "ezberdindu" egin behar direla telelana eta kontziliazioa: "Batzuek uste dute norbait etxetik telelanean ari bada ez dela lanean ari, baina telelana da bulegotik beharrenean etxetik lan egitea. Beste gauza bat da kontziliazioa, eta telelanak hori erraztu dezake. Baina uste dut bere alde txarrak ere eduki ditzakeela; talde-lana, adibidez, ez da berdina egiten."

Iraitz Perez de Goldarazena aitortu zuen bi urteko telelanaren erabilera intentsiboak lantaldearen kohesioan eragin duela Oreka ITn: "Oso argi nabaritu da orain dela sei hilabete edo urtebete enpresan sartu ziren langile berriak ia arrotzak direla besteentzat. Ez dute topagunerik izan haien burua aurkeztu eta harremana sortzeko. Telelanarekin lan taldearen kohesioa indartzea zailagoa izaten da."

Elkargune falta

Perez de Goldarazena telelanean faltan sumatu zituen lan-kideekin aurrez aurre egoteko elkarguneak: "Argi dago telelanak badituela onura handiak, batez ere desplazamenduak laburtzea, baina gakoa da nola asmatuko dugun enpresek telelanaren onurak hartu eta taldearen kohesiorako elkarguneak sortzen."

Barrueta Beña gaineratu zuen telelanaren inplantazioak aldaketa "ikaragarria" ekarri zuela baina oraindik "landu" egin behar dela: "Uste dut enpresek beraien pertsonengana eta lan prozesuetara inteligentzia emozional pixka bat gehitu beharko dutela."

Lanaren antolaketa

Urte hauetan aldatu egin da lana egiteko modua, eta baita lana antolatzeko modua ere. Perez de Goldarazena aldaketa handia nabaritu du azken urteotan: "Nola aldatu den mundua! Gure sektorean behintzat, lanean hasi nintzenean, oso ohikoa zen pentsatzea gehien



lan egiten zuena zela etxera beranduen bueltatzen zena. Kultura hori zegoen, baina gaur egun ez da hala.”

Barruetabeñak ere aldaketa igarri du eta honakoa gaineratu zuen: “Pentsamolde horretan bi kontu: alde batetik, ordutegiarekin erlazioatutako lana eta, beste aldetik, sufrimendua, asko eman beharra, sufrimendua eta inplikazioa gauza bera balira lez. Hori aldatu egin beharko da eta lana ondo egitea eta ondo ateratzea bilatu beharko dugu. Nik ez dakit Ruper Ordorikak lan asko edo gutxi egiten duen, baina diskoa ateratzen duenean, gustatu egiten zait. Hor dago benetako balioa talentua behar duten enpresetan.”

Etorkizunerako erronkak

Mundu globalizatuan eragin handia dute gugandik urrun izaten diren gertaerek. Perez de Goldarazanak Txinarekiko menpekotasunaren inguruko hausnarketa egin zuen: “Ekonomia globalizatu hau tentsionatu dugunean erantzuna zein izan da? Gogoratzen duzue Evergreen? Kanala blokeatu eta, bat-batean, mundua bera blokeatu zen. Horrek erakutsi zigun nolako dependentzia dugun Txinan ekoizten diren produktuekiko. Hainbat gauzatan merkataritza irizpideengatik bakarrik erabaki beharko da, baina adibidez osasungintza edo oinarrizkoak diren produktuei buruz ari garenean, ez genituzke irizpide horiek bakarrik aintzat hartu beharko. Arautu be-

harko genuke nola bermatuko dugun oinarrizko hornikuntza hori.”

Urzelaik, berriz, aipatu zuen gaur egungo enpresen erronka nagusia hornikuntza katearen kudeaketan dagoela: “Enpresen ardurak aldatzen ari dira. Orain hilabete batzuk enpresen erronka nagusia koronabirusaren aurkako txertaketa zen, baina gaur egun, enpresei galde-tuta, batez ere hornikuntza kate horien kudeaketan dago gakoa.” Urzelaik gaineratu zuen iraultza berdeak aldaketa “izugarriak” ekarriko dituela: “Deskarbonizaziorantz joan behar dugu. Etorkizunera begira, energia berriztagarriak indar handiz etorriko dira eta hori mehatxu bezala hartu beharrean, aukera bezala hartu beharko genuke.”

Lansarean.eus lan-ataria berri du


Bai Euskarari Elkarateak kudeatzen duen Lansarean lan-ataria berri du eta lan bila ari direnentzat erabilgarria diren berrikuntzak txertatu ditugu, tartean, CV eredu ezberdinak hutsetik sortzeko eta deskargatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Hobekuntza hauen bitartez, lana bilatzeko prozesua erraztu nahi izan dugu.

Bestetik, Azterketa Ofizialen Atala ere eguneratu dugu. Ber-

tan, prestakuntzarako materiala igo edo deskarga daiteke, baita galdetegiak online egin ere.

Tresna erabilgarria da Lansarean, lan bila ari direnentzat ez ezik, profesional euskaldunen bila ari diren enpresentzat ere; bertan lan-eskaintzak jarri eta bertatik kudea baititzakete enpresek.

Sartu Lansarean.eus webgunean eta sortu zure kontua Enpresa edo Hautagai bezala.



Gazteen enpleagarritasunaren inguruan solasean



Urriaren 21ean, gazteen lan aukeren inguruko Enpresaren Foroa izan zen IMHn, Elgoibarren, Bai Euskarari Elkarateak antolatuta.

Osasun zein ekonomia krisiek gazteengan eta hauen enpleagarritasunean nola eragiten duten aztertu zuten solasaldian. Nora Kortaberria Bilbaok egin zituen moderatzaile lanak eta solasaldian honako hauek parte hartu zuten: Ixaka Egurbide Lekube, IMHko zuzendaria; Maialen Olabe Aguirre, Euskadiko Gazteriarren Kontseiluko koordinatzailea; Ibai Zubikarai Zubimendi, Gu Interim Management-eko zuzendaria; eta Jon Larrañaga Urdalleta, Larra Mekanizatuak enpresako zuzendaria.

Ikusi solasaldi osoa:



Joseba Barandiarani elkarrizketa, Enpresarean Telebistan

Enpresarean Telebistaren azaroko saioan Joseba Barandiaran ekonomialaria elkarrizketatu genuen. Bai Euskarari Ziurtagiria duen Euskal Ekonomisten Elkargoko kide da Barandiaran eta ekonomiaren egungo egoeraz eta Covid-19aren eraginaz jardun genuen berarekin.

Ikusi elkarrizketa:



JEAN-FRANÇOIS LEFORT MEDIABASK

“Euskarari garrantzia eta prestigioa emateko tresna arrunt egokia da Ziurtagiria”

Mediabask hedabideak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu berri du. Jean-François Lefort Mediabaskeko zuzendaria arduratu da urrats hori aurkezteaz hedabideak Urruñan duen egoitzan.

Mediabasken helburua da Euskal Herriko gaurkotasunari buruzko informazioa egunero ematea eta gaurkotasun horri buruzko eztabaidak eta gogoetak sortzea. Jean-François Lefort Mediabaskeko zuzendaria elkarrizketatu dugu, hedabidearen proiektuen inguruan gehiago jakiteko.

Elkarrizketa irakurri:



Teknikari berriak ditugu elkartean

Ane Insua Lopez da, azaroaren erdialdetik, Bai Euskarari Elkarteak Baionan duen bulegoko teknikari berria. Bai Euskarari ziurtagiria eta elkartearen gainerako proiektuak Ipar Euskal Herrian kudeatzea eta hedatzea da bere lana; baita ziurtagiria duzuenekin hartuemanean jarraitzea ere.

Amaia Atxukarro Goñi, berriz, Andoaingo egoitza zentraletik ari da lanean abenduaren 1etik. Bai Euskarari Ziurtagiriaren koordinazio lanetan arituko da, baita alor sozioekonomikora bideratutako proiektuetan ere.



**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Non jarri duzue Bai Euskarari Ziurtagiriaren irudi berria?

Irailean Bai Euskarari Ziurtagiriaren irudi berria duten eranskailuak bidali genizkien ziurtagiria duten entitate guztiei, bulego, denda edo enpresako sarreran jartzeko. Erronka bat ere proposatu genuen: sare sozialetan argazki bat partekatzea, ziurtagiriaren pegatina non jarri duten adieraziz. Dagoeneko jaso ditugu batzuk eta eskerrak eman nahi dizkizuegu!

Zuek ere partekatu nahi baduzue, gogoratu #BaiEuskarariZiurtagiria traola erabiltzea eta @BaiEuskarari kontua aipatzea. Mila esker!



19 entitate berri Bai Euskarari komunitatean

Azken asteotan 19 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzen ari gara, pausoz pauso. Zorionak denoi eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

- Zapore izozki denda
- ADARABAR
- Burutxaga Harakintzak S.L.
- Irati Algorta
- Amintel, S.L.
- Selene frutadenda
- Eguia Foods, S.L.
- Koboloi
- Mediabask
- Etxe-lan, S. Coop.
- Antzerkhizkuntza S.L.
- Errigora
- Elkarkidetza Pentsioak
- deviCE Sistemas S. Coop.
- Xalto ta Brinko Animazio Elkartea
- HUPI
- Cebanc
- Ambulancias Gipuzkoa
- Maia Permaculture

Ikusi
ziurtagiridun
guztien
mapa:



lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus





MAITANE ORMAZABAL LARZABAL TXUKUNTZEN

“Lan eremuan efiziente eta produktiboagoak izaten laguntzen digu ordenak”

Maitane Ormazabal Larzabal antolatzaile profesionala da. Ohitura aldaketetatik abiatuta, hainbat egoera kudeatzeko laguntza eskaintzen die bere bezeroei, Txukuntzen zerbitzuaren bitartez. Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du aurten, 'Zerbitzua eta Lana euskaraz' maila, eta elkarrizketa egin diogu bere zerbitzua ezagutu eta antolaketaren inguruko gako batzuk eman diezazkigun.

Hemen irakur dezakezue elkarrizketa osoa:



“Eguneroko autoarekin mugitu ahal zara eta nahi duzun lekuan lo egin”

Auto arruntak kanper bihurtzeko altzariak egiten hasi zen Gus Elizondo Irigoin hazpandarra duela pare bat urte. Bidaiatzeko grina eta zurgin ikasketak uztartu, eta furgoneta txiki nahiz handiagoetan txertatzeko kutxa kengarriak egiten ditu Moondura Kit Van Camper proiektuarekin. Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du, eta 'Zerbitzua eta Lana euskaraz' eskaintzen du.

Elkarrizketa osoa:



mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri
handiko
mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21
HERNANI
T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com





2022

**URTE
BERRI
ON!**

**LAN EGIN,
BIZI ETA EKIN
EUSKARAZ!
JARRAI
DEZAGUN
SAREA
INDARTZEN.**



**LAN ETA BIZI
EUSKARAZ**

baieuskarari.eus